

# Kartzela barruko espetxea

FIES erregimenean dauden presoek gutun, poesia eta marrazkiak bildu ditu Nuria Guell artistak, sistemaren ankerkeria gizaritari erakusteko asmoz.

Arantxa Elizegi

Jarraipen Bereziko Barne Artxiboak. Horixe esan nahi dute FIES siglek. Baina hitz horien atzean erregimen ilun bezain ankerra ezkututzen da. Izan ere, artxibo horietan sailkatua izateak bakartua, kontrolatua eta torturatua izatea esan nahi du preso horientzat. Besteak beste, artxibo horietan sartu ohi dira terrorismoaz akusatutako guztiak.

«Erregimen hori legez kontrakoa da; giza eskubide guztiak urratzen ditu. Kartzela gogorra da, baina sistema horretan daudenak kartzela barruko espetxe batean daude», dio Amadeu Casellas. Ondo daki zertaz ari den; izan ere, CNTko kide zela hainbat banku lapurtu zituen, langileen borrokari laguntzeko asmoz, eta, ondorioz, preso egon zen 1979tik 2010 arte. Tarte horretan FIES erregimenean sartu zuten. «Zorrea izan nuen, eustea lortu nuelako. Baina ikusi dut jendea oso indartsu sartu dena, eta urtebete buruan ezerezean geratu dena, burua galduta. Hori da haien helburua, presoak ezeztatzea». Horregatik erabaki zuen Nuria Guell artista katalanaren Legearen Aplikazio Desplazatua proiektuarekin bat egitea. FIES ahalbidetu duen legea aztertu eta kontrako bidean aplikatzea da haren helburua. «Jendeak jakin behar du bere burua demokratiko eta progresistatzat aurkezten duen gobernu hau faxista hutsa dela. Nik han ez dut aurkitu politikari goi kargudunik, ez enpresaririk, ezta eskuin muturrekorik ere; ezkerreko militanteak dira guztiak».

## Testigantza idatzia

Duela urtebete inguru hasi zen Guell FIES erregimenean zeuden presoekin hartu-emanetan. «Beste proiektu batean nengola bururatu zitzaizkidan kartzelan zeudenekin zerbait egitea. Haien egoera salatu nahi nuen, baina ezustean harrapatu ninduen aurkitu nuenak». Casellasen laguntzarekin hasi zen harremanak egiten. Marrazkiak, poemak edo bestelako testigantza eskatzeko zizkien presoek. «Rolak aldatzea zen nire helburua. Alegia, FIESen arduradun politikoei, nolabait

ere, presoek sentitzen zutena sentiaraztea». Horretarako, jasotako gutunak, banan-banan eta era anonimoan, Francisco Caamaño Justizia ministro izandakoari bidaltzen zizkion, haren oportetako etxera. «Nahi nuen ohartzea hura atsedean hartzen ari zen bi-



Erregimen hori legez kontrakoa da; giza eskubide guztiak urratzen ditu»

AMADEU CASELLAS  
Preso ohia



Espanian, oraindik indarrean daude frankismo garaiko sistemak»

NURIA GUELL  
Proiektuaren sortzailea

tartean beste batzuek hark baimendutako bakartzea, tortura eta ezinegona jasaten jarraitzen zutela». Horrez gain, prentsa agerraldi bat ere prestatu zuen, eta komunikabide nagusiak gonbidatu zituen bertara. «Informazioa eta hainbat testigantza bidali nizkien. Gizaritari gertatzen ari zenaz ohartaraztea zen gure asmoa». Baina inor gutxi agertu zen. «Handiek —*El Pais*-ek, *El Mundo*-k, *ABC*-k— erantzun ere ez ziguten egin, eta jakin badakit seguru informazioa jaso zutela. Baina argi dago halako kontuak zabaltea ez zaiela interesatzen». Horregatik, orain, beste bide bat hartu dute, eta herriz herri dibiltza euren proiektua aurkezten. Joan den astean, esaterako, Donostiako Kaxilda liburu dendan aurkeztu zuten. «FIES erregime-



FIES erregimenean dagoen preso batek egindako marrazkia.

na ikusaraztea da helburua. Artxibo erraldoi bat sortzea, herritarrek zuzenean ikus dezaten zein den preso horien guztien egoera, eta euren ondorioak atera ditzaten».

## Krudelkeriaren argazkia

Guellentzat berarentzat ere gogorra izan da prozesua. «Lehen gutunak Gabon garaian jaso nituen. Testigantza zuzenak ziren, benetan latzak». Zailtasunak ere gairatu behar izan zituen. «Hainbat arte erakunderen laguntza jaso nuen, eta hasieran haiek bidali zizkieten gutunak presoek, baina zigilu ofiziala zuten, zenbait presondegitan konfiskatu egin zituzten. Antza, susmagarritzat jo zuten artea. Ondoren, gertatutakoaz ohartuta, neronek idatzi nien, eta erantzun

gehiago jaso nituen, batzuk zuzenean, eta beste asko haien senide eta lagun baten bitartez».

Orain arte bildutako marrazki, poema eta testigantza [www.acvic.org/files](http://www.acvic.org/files) helbidean batu ditu Guellek. Haietako bat da Claudio Lavazza presoarena. Hark Badajozen (Espainia) preso zegoen lagun baten kasua kontatzen du: «Bere buruaz beste eginez aurkitu zuten askatasuna, pilula dosi hilgarri bat hartuaz, oso era gogorren. Hala, gehiago jasan ezin zuten bakartzetik eta kartzelaren errealitatekin behin betiko ihes egin zuten. Nola azaldu bizi duguna eta urteetako bakartzek guregan eragiten dituen kalteak? Eguneko 24 orduak soilik zeru zati bat ikus daitekeen ziega baten eta metro koadro gutxi batzuk dituen atari baten artean igarotzek on-

dorio psikologiko izugarriak eragiten ditu. Botereak aulki elektriko bano suntsitze makina eraginkorragoa du bere eskuetan, baina hori ulertzea kostatu egiten zaie aske bizi diren gehienei».

Guelli ere kosta egin zitzaion hasieran, baina, testigantza jaso ahala, ohartuz joan zen justizia sistemaren bere ikuspegia aldatu egin zela. «Honek guztiak gizarterekiko eta sistemarekiko ikuspegia aldarazi dit. Lehen ez bezala, orain ohartzen naiz demokraziarena gobernuak jokatzeko ari den rol bat besterik ez dela. Espainian oraindik indarrean baitaude frankismo garaiko sistemak. FIESen dauden gehienak preso politikokoak dira, frankismoaren aurka borrokatu eta erregimenerikiko iritzi kontrajarria erakutsi zutenak».